

"Bere zafiak lehertzeaz jarri ziran". Aren... edota, zafiak lehertzeaz jarri ziran (gizon ark). Euskera garbiz: jarri zitzaizkion.

Naiko erakusgarri dira, idazleak inoiz utsegin ez dezaten.

Europear biurtu nai gaitute. Zertan, ordea? Zer eta zerbait eta izatea kentzen ba'ditugu, joan da pertza; Metafisica erro-errotik ateratzen degu, filosofia dun zatirik ederrena. Arako ingeles filosofuarena: "lan-maiean ari naizenean, gauza guzia itxura ta irudipenak dirala uste det; baiña otordu-maiean txuleta eder bat ikusten dedanean, ua zerbait dala iruditzen zait".

Txillardegi'k bere liburuia onela bukatzen du: "Arrazoi zenuen: burutik egiña dago" (Leartza).

Nik ere artikulua onela bukatzen det: "Liburu au buruz egiña ordez, burutik egiña dago. Bazartu ezazute zoko illunera".

Oarkizun. Orain ez daukat Bergson nerekin, eta ezin aipatu izan ditut orrialdea ta lerroa. Nik 78'garren argitaraldia irakurri nuun, eta seguru nago, an, gizona ekaia (**materia**) dala esaten dula.

Nola, bada, dioke baten batek, materialistan aurka pagina ederrak idatzi bazitun? —Ez, beraren sistemari egi ori zeriolako, ala gertatuz baizik (**per accidens**).

Naiago nuke A. Intxausti'k Ortega Gasset'ekin egin duna Bergson'ekin egingo ba'lu.

Orixe.

YAKIN'en sariketa

Jakiñaren gaiñean zerate YAKIN'en argitaratzen diren lanentzat antolatatu genuen txapelketaz [Ikusi YAKINtxo'ren lendabiziko zenbakiaren 2'en orrialdea]. Ba, oraingoan epaileak eman nai dizkizuegu ezagutera. Prakadun ta eliz-gizonak naasian aukeratu ditugu. Bost dira guziok ta ongi ezagunak guzientzat. Bakoitzak lau lan izendatuko dizkigu, beren balioei dagokienez zerrendatuaz eta, lan guzian puntuak zenbatu ondoren, zuzendaritzak argitara emango du azken erabakia. Ona bostok:

Luis Mitxelena Jauna,
A. Santiago Onaindia, karmeldarra,
A. Karmelo Iturria, prantziskotarra,
Imanol Lekuona Apaiz Jauna,
Txillardegi Jauna.